

AURKIBIDEA

Ekainaren 9an, URTEAN ZEHARREKO X. IGANDEA	4
Ekainaren 16an, URTEAN ZEHARREKO XI. IGANDEA	11
Ekainaren 23an, URTEAN ZEHARREKO XII. IGANDEA	17
Ekainaren 30ean, URTEAN ZEHARREKO XIII. IGANDEA	23
Uztailaren 7an, URTEAN ZEHARREKO XIV. IGANDEA.....	29
Uztailaren 14an, URTEAN ZEHARREKO XV. IGANDEA.....	35
Uztailaren 21ean, URTEAN ZEHARREKO XVI. IGANDEA.....	42

Ekainaren 9an
URTEAN ZEHARREKO X. IGANDEA

Agurra

Jauna zuekin.

Sarrerako oharpena

Pazkoaldiko misterio ederrak eta ondorengo jaiak ospatu ondoren Urtean Zeharreko igandeei haltzen diegu gaur. Jauna gurekin dator egunero, gure bizitzaren egunerokotasunean. Baina gurekin dator beti, egunerokoa handi eginez eta gu zainduz. Ospa dezagun pozik igandeko Eukaristia.

Damu-otoitza

Senideok: Aitor ditzagun geure bekatuak, misterio santuak ospatzeko gai izan gaitezen.

—Jesus Jauna, Zu zara gure bidea: erruki, Jauna.

—Jesus Jauna, Zu zara gure egia: Kristo, erruki.

—Jesus Jauna, Zu zara gure bizia: Erruki, Jauna.

Erruki dakigula Jainko guztiz ahaltsua, eta, gure bekatuak barkaturik, eraman gaitzala betiko bizira.

Otoitza

**On guztien iturri zaren Jainkoa,
entzun onez gure otoitza,
eta egizu, Zuk argiturik, jakin dezagula zer den zuzena
eta, Zuk eraginik, bete dezagula.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta Errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan.**

Hitzaren liturgiari oharpena

Bekatuagatik galdu zuen gizakiak Jainkoarekiko adiskidetasuna. Berak ordea, salbamera hitz ematen digu heriotza piztueraz desegin zuen Kristoren bidez. Fedea erakusten digu gu ere piztuko garela Berarekin azken egunean. Entzun dezagun.

Lehenengo irakurgaia (Has 3, 9-15)

Hasiera liburutik

Adamek zuhaitzetik jan ondoren, Jainko Jaunak dei egin eta esan zion: «Non zara?» Hark erantzun: «Zure oin-hotsa baratzean entzun dudanean, beldurtu eta gorde egin naiz, larrugorri nengoelako». Jainkoak esan zion: «Eta zeinek jakinarazi dizu larrugorri zeundela? Galarazi nizun zuhaitzeko fruitua jan al duzu?» Gizonak erantzun: «Laguntzat eman didazun emakumeak eskaini dit fruitua, eta jan egin dut». Orduan, Jainko Jaunak esan zion emakumeari: «Zer egin duzu?» Emakumeak erantzun: «Sugeak engainatu nau eta jan egin dut».

Eta Jainko Jaunak esan zion sugeari: «Hori egin dualako, madarikatua izango haiz abere guztien eta basapiztia guztien artean; sabel gainean ibiliko haiz arrastaka eta hautsa jango duk heure bizitzako egun guztietan. Elkarren etsai egingo zaituztet hi eta emakumea, hire eta haren ondorengoa; honek burua zapalduko dik, eta hik orpotik helduko diok».

Erantzun-salmoa (Sal 130 [129], 1-2. 3-4. 5-6b. 6c-8)



Jau-na-gan da-go e-rru-ki-a, Ha-ren-gan as-ka-ta-sun u-ga-ri-a.



- ✠. Barren-barrendik dei egiten **dizut**, Jauna;
 entzun, Jauna, nire **mintzoa**!
 Beude erne zure **belarriak**
 nire erregu-**oihura**. ✠.
- ✠. Erruak kontuan badituzu, Jauna,
 nork iraun zutik, **ene** Jauna?
 Baina Zuri barkamena **dagokizu**,
 Zuganako begirunean bizi **gaitezen**. ✠.
- ✠. Jaunaren zain nago, zain dago nire **barrena**,
 haren hitza dut **itxaro**;
 nire barrena Jaunaren irri**kaz** dago,
 gauzaina egunsentiaren irrikaz baino **gehiago**. ✠.
- ✠. Gauzainak egunsentia bezala, ‘
 itxaron beza Israelek **jaunagan**,
 Jaunarena baita maitasuna, ‘
 harena askapen **betea**.
 Hark askatuko du **Israel**
 bere erru guztie**tatik**. ✠.

Bigarren irakurgaia (2 Ko 4, 13 – 5, 1)

San Paulo Apostoluak Korintoarrei egindako bigarren gutunetik

Senideok: Hau dio Liburu Santuak: «Sinetsi nuen, eta horregatik hitz egin nuen». Guk ere, sinesmen-espiritu bera dugularik, sinesten dugu eta horregatik hitz egiten dugu, jakinik, Jesus Jauna piztu duenak piztuko gaituela gu ere Jesusekin, eta honen ondoan ipiniko gaituela zuekin batean. Hau guztia zuen onerako da, Jainkoaren dohaina

askorengana zabaltzean, esker ona ere askorengan ugal dadin, Jainkoaren aintzarako.

Horregatik, ez dugu kemena galtzen. Gure gorputza hondatzen ari bada ere, barrutik indarbertitzen ari gara egunetik egunera. Izan ere, oraingo gure nekeek, une batekoak eta arinak izanik, betikoa den aintza paregabea prestatzen digute. Geure begiak ez ditugu ipintzen ikusten diren gauzetan, ikusten ez direnetan baizik; ikusten direnak behin-behinekoak baitira; ikusten ez direnak, berriz, behin betikoak.

Jakin badakigu, mundu honetan bizileku dugun oihal-etxola hau hondatzen bazaigu ere, badugula zeruan betiko bizilekua, Jainkoak prestatua, ez giza eskuz egina.

Aleluia (*Jn 12, 31b-32*)

A - le - lu - ia, a - le - lu - ia.

Orain, mundu honetako **n**agusia
kanpora haizatuko dute —**d**io Jaunak—;
eta Nik, lurretik gora jasoko **n**autenean,
Neuregana bilduko **d**itut guztiak. R/.

Ebanjelioa (*Mk 3, 20-35*)

Homiliarako argibideak

Markosen eskutik Jesus ezagutuz

Eguberri-jaien ondoren hasi genuen “urtean zeharreko igandeen” zerrenda, eten egin genuen Garizuma eta Pazkoaldia ospatzeko.

Orain, igande haien zerrenda jarraitzen dugu, Urtean Zeharreko hamargarren igande honekin.

Markosen ebanjelioa irakurriko dugu Urtean Zeharreko igandeetan, gehienetan. Badakigu, Markosek idatzi zigun ebanjelioa laueta gordinena dela; azaltzeko eta ulertzeko neketsua. Baina Markosen ebanjelioa da Nazareteko Jesus gizon harengana garbien hurbiltzen gaituena. Bestalde, misio-kutsu handia du ebanjelio honek. Markosen ebanjelioa bere egin ez duenak, ez du Jesusen mezua sakontasunez jasoko. Merezi du, beraz, ebanjelio horretara hurbiltzen ahalegintzeak. Ez zaigu damutuko!

Sei zatitan bana dezakegu Markosen ebanjelioa. Garizuma aurretik, lehendabiziko zatia irakurri eta hausnartu genuen. Gaurko honekin, bigarren zatia hasi dugu: hamabi apostoluen aukeratzea eta misiora bidaltzea izango da bigarren zati honen mezu nagusia.

Eta ohar hauek eginda goazen gaurko ebanjelio zatira. Hor ikusten ditugu, alde batetik, Jesus Jauna eta bere ikasleak... eta etsaiak eta jende-talde bestetik. Eta bi motatako etsaiak ditu Jesussek aurrean: bere ahaideak eta Jerusalemgo idazlariak. Hona Markosek dakarren detailea, benetan harrigarri gertatzen dena: Jesusen ahaideak eta Jerusalemgo idazlariak elkarrekin Jesusen eta ikasleen aurka. Horrek zer pentsatua ematen digu!

Ebanjelariak garbi uzten digu, Jesusi senitartekoek ere ez diotela ulertu. Kontra jarri zitzaizkion: "Burutik eginda zegoela uste zuten, eta ez zeuden familiaren izen ona galtzen uzteko! Beren etxe eta herrialdera eraman nahi izan zuten. Pentsatu eta erabaki dute: dagoeneko etxe-atarian ditu bere ama eta senideak..."

Pentsa dezagun. Irudikatu Jesusen keinuak, hitzak eta bereziki Haren aurpegia. Serio baina irmo esan zuen: Zein dira nire ama eta

nire senideak? Eta inguruan eserita zeudenei begiratu, honela esan zuen: “Zuek zarete nire ama eta senide, Aitaren nahia eginez gero”.

Jar nadin Jesus Jaunaren aurrean, eta egin dezadan otoitz honela: “Jauna, hemen naukazu zure aurrean, naizen bezala agertzeko beldurrez. Zugandik ezkutatu nahirik. Baina ez, emadazu kemena nire lotsak eta beldurrak argi eta garbi ikusteko eta zuzentzeko. Ez nadila errua besteri ezartzen aritu, zure begirada garbiak atera nazala neure burua engainatzetik”.

Galdeiozu zeure buruari: saiatzen al naiz bataioko hitza betez, egunero Aitaren nahia betetzen? Edonon agertzen al naiz Jesusen taldeko, fededun bezala? Ez ote daukat Jesus, burutik egindakotzat? Kristau jokabide asko ez al ditut erokeriatzat hartzen? Zer iritzi dut dena utzi eta Jesusi erabat jarraitzen diotenei buruz?

Jainkoaren herriaren otoitza

Senideok: egiogun otoitz Aita errukitsuari, Kristoren Espirituak gure bihotzean isuri duen seme-alaben konfiantzarekin:

- Aita Santuaren alde: Eliza osoaren Gotzain aukeratu zuen Jainkoak zoriona eman diezaion, eta Bere herri santua gidatzeko babes dezan. Egigun otoitz. R/.
- Gure herriaren alde eta bertako agintarien alde, herri guztien alde eta arduradun guztien alde: egiazko bakea bidera dezaten Jainkoaren argitasunez eta laguntzaz. Egigun otoitz. R/.
- Bihotz-berritze bidean direnen alde, bataiorako prestatzen direnen alde edota haurrak bataiatzeko prestatzen direnen alde: Jainko gure Jaunak, sakramentuen bidez, bere errukiaren atea zabal diezazkien, Kristoren bititza berrian sar daitezen. Egigun otoitz. R/.

—Gaixoen alde, Jainkoak beraien otoitzak entzun ditzan eta bizi dituzten zailtasunetan bere errukiaren gozoa eskain diezaien. Egigun otoitz. R/.

Aita guztiz santua, gu bekatutik askatzeko bidali diguzu Zure Semea; entzun iezaguzu, arren, eta sendo gaitzazu fedean, gaitz guztien aurka lan eginez Kristoren garaipenean parte izan dezagun. Errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan.

Jaunartze-ondorengo otoitza

**Zure indar sendatzaileak
gorde gaitzala, Jauna,
Zugandik bereizten gaituen gaiztakeriatik
eta gida gaitzala zuzentasun-bidean.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.**

Ekainaren 16an
URTEAN ZEHARREKO XI. IGANDEA

Agurra

Jesu Kristo gure Jaunaren grazia, eta Jainko Aitaren maitasuna, eta Espiritu Santuaren batasuna izan bedi zuekin.

Sarrerako oharpena

Urtean zeharreko aldian jarraitzen dugu. Jainkoaren Erreinua eguneroko bizitzan hazten ari den zerbait bezala aurkeztuko zaigu gaur. Gure bihotzean egiaren eta graziaren hazia ereiten ari da Jainkoa, zabal diezaiogun bihotza, Eukaristiaren indarrak lagunduko digu Jainkoaren borondatea geureganatzen.

Damu-otoitza

Senideok: Aitor ditzagun geure bekatuak, misterio santuak ospatzeko gai izan gaitzen.

—Jesus Jauna, bihotz-urratuak salbatzera bidalia: erruki, Jauna.

—Jesus Jauna, bekatarietako dei egitera etorria: Kristo, erruki.

—Jesus Jauna, gure alde otoitz egiteko, Aitaren eskuinaldean zaituguna: Erruki, Jauna.

Erruki dakigula Jainko guztiz ahaltsua, eta, gure bekatuak barkaturik, eraman gaitzala betiko bizira.

Otoitza

**Oi Jainko, Zugan itxaroten dutenen indarra,
 entzun bihotz onez gure otoitza;
 eta Zu gabe gizakiaren ahulezia ez baita ezertarako gai,
 emaguzu beti zeure graziaren laguntza;**

zure aginduak betez,
 Zuretzat atsegingarri izan gaitezen gogoz eta egitez.
 Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
 Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
 Jainko eta Errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan.

Hitzaren liturgiari oharpena

Geu gara gure bizitzaren protagonista eta ekimenen arduradun, baina Jainkoaren esku gaude eta bera gure bizitzan presente dago. Berak eragiten gaitu: dena ez dago gure esku bakarrik. Bera da zaintzen gaituena eta fruitu emanarazten diguna.

Lehenengo irakurgaia (Ez 17, 22-24)

Ezekielen Profezia liburutik

Honela mintzo da Jainko Jauna: «Zedro garaiaren adaburutik hartuko dut Nik ere, kimu bat hartuko dut haren adar-puntatik, eta mendi garai eta bikain batean landatuko. Israelgo mendi garaietan landatuko dut; adarrak zabalduko ditu eta fruitua emango, zedro bikain bihurtuko. Mota guztietako hegaztiak biziko dira bertan eta habia egingo haren itzalpean.

Basoko zuhaitz guztiek jakingo dute Nik, Jaunak, zuhaitz garaiak behertu eta txikia goratu egiten dudala, zuhaitz hezea ihartu eta iharra heze-berritu. Nik, Jaunak, esandakoa bete egingo dut».

Erantzun-salmoa (Sal 92 [91], 2-3. 13-14. 15-16)



Lur o-so-a, e-gi-o-zu i-rrin-tzi Jain-ko-a-ri.



- ∞. Bai ederra, Jauna, Zu **gorestea**
 eta zure izena, Goi-goiko, kantuz ospatzea,
 goizean zure maitasuna iragartztea
 eta gauean zure leialtasuna! R̄.
- ∞. Zintzoa palmondoa bezala garattuko da,
 Libanoko zedroa bezala **haziko**;
 Jaunaren etxean landatua,
 gure Jainkoaren atarietan garattuko da. R̄.
- ∞. Zaharturik ere emango du **fruitua**,
 mardul eta heze **iraungo** du,
 Jauna zuzena dela iragartzeko,
 nire harkaitza, gaiztakeriarik ez **duena**. R̄.

Bigarren irakurgaia (2 Ko 5, 6-10)

San Paulo Apostoluak Korintoarrei egindako bigarren gutunetik

Senideok: Uste onez beteak gaude beti, jakinik, gorputz honetan bizi garen bitartean, Jaunagandik erbesteratuak gaudela. Sinesmenaren argiak gidatzen gaitu, eta ez ikusten dugunak. Uste onez gaude, bai, baina nahiago genuke gorputz honetatik erbesteratuak izan, Jaunarekin bizitzera joateko.

Nolanahi ere, gorputzean nahiz gorputzetik kanpo, Jaunari atsegingarri izaten ahalegintzen gara; guztiok Kristoren auzitegian agertu behar baitugu, nor bere ordaina hartzeko, gorputzean bizi zelarik egindako ongiaren ala gaizkiaren arabera.

Aleluia

A - le - lu - ia, a - le - lu - ia, a - le - lu - ia.

A - le - lu - ia.

℣. Hazia, Jainkoaren hitza da; ereilea, **berriz**, Kristo;
honi aditzen dionak betiko bizia **izango** du. ℟.

Ebanjelioa (*Mk 4, 26-34*)**Homiliarako argibideak***Apal-apal eta konfiantzaz*

Jesusek kezka handia bizi zuen bere jarraitzaileak halako batean etsipenean eroriko ote ziren, pentsatuz; hain zuzen, mundua gizatarrago eta zorionsuago egiteko beren ahaleginek arrakastarik ez zutela ikustean. Ez ote zuten bertan behera utziko Jainkoaren erreinua? Eutsiko ote zioten zeruko Aitarekiko konfiantzari? Nolanahi ere, honek izan beharko lukete gauzarik garrantzikoena: ez ahaztea sekula, nola lan egin.

Galileako nekazarien esperentziatik jasotako etsenpluz baliatuz, eskatu die, lan egin dezatela beti oinak lurrean dituztela, pazientziaz eta konfiantza handiz. Ezin ireki zaio bidea nolanahi Jainkoaren Erreinuari. Kontuan izan behar dute, hartan nola lan egin.

Lehenik eta behin, jakin behar dute, beren lana ereitea dutela eta ez uzta biltzea. Ez dute bizi behar emaitzak zein izango begira. Ez dute kezkatu behar, ez eginkortasunez, ez berehalako arrakastaz. Ebanjelioa ereitea izan behar dute beren arreta nagusia. Jesusen lankideek ereile izan behar dute. Besterik ez.

Hedapen erlijioso eta ahalmen sozial handiko mende askoren ondoren, ereilearen keinu apala berreskuratu behar dugu Elizan kristauek. Beti fruituak jasotzera doan uzta-biltzailearen logikaz ahaztu, eta etorkizun hobea erein nahi duenaren pazientziatzko logika besarkatu.

Ereite ororen hasierak apalak izan ohi dira beti. Askoz gehiago, arazoa gizakiaren bihotzean Jainkoaren Egitasmoa ereitea baldin bada. Ebanjelioaren indarra ez da sekula gauza handios edo arranditsua. Jesusen arabera, «*mostaza-hazia*» bezalako gauza txiki eta ezdeus bat ereitea bezala da, fedea jendearen bihotzean ezkutuan ernetzen baita.

Horregatik, fedez bakarrik erein daiteke Ebanjelioa. Hori eman nahi die aditzera Jesusek bere parabola xumeen bidez. Mundua gizatasun handiagoko egiteko, Jainkoaren Egitasmoak berekin du indar salbatzaile eta eraldatzailea, jada ereilearen esku ez dagoena. Jainko horren Berri Ona pertsona batengan edo gizatalde batengan sartzen denean, gu gainditzen gaituen zerbait hasten da indartzen han.

Elizan ez dakigu une honetan nola jokatu, egoera berri eta inoiz ez bezalako honetan, gero eta ez-axolago eta nihilistago den gizarte honetan. Inork ez du errezetarik. Inork ez daki juxtu zer egin. Egin behar duguna, bide berriren bila jotzea da, apal-apal eta konfiantza Jesusengan jarriz.

Goiz edo berandu, funtsezkoa itzuli beharra sentituko dugu kristauek. Konturatuko gara, Jesusen indarrak bakarrik biziberritu dezakeela fedea gure egun hauetako gizarte deskristautu honetan. Orduan ikasiko dugu Ebanjelioa apal-apal ereiten, fede berritu baten hasiera bezala, ez geure ahalegin pastoraletz eskualdatua, baizik Ebanjelioak berak sortua.

Jainkoaren herriaren otoitza

Senideok: egiogun otoitz guztia ezagutzen duen Jainkoari, Berak badaki-eta gizakion beharrak zein diren:

- Egin dezagun otoitz Elizaren alde: Jainkoak, gure Jaunak, sendo dezan, zatiketa guztiak urrun ditzan eta munduko kristau guztien otoitzak entzun ditzan. Eska diezaiogun Jaunari.
- Egin dezagun otoitz gure herriko eta mundu guztiko agintarien alde: Jainkoak jakinduria eta indarra eman diezaien, bere ardurapean duten herria bakez eta justiziaz goberna dezaten. Eska diezaiogun Jaunari.
- Egin dezagun otoitz etxetik urrun daudenen alde: Jaunak etxera pozik itzuli eta familiarekin elkartzeko dohaina eta zoriona eman diezaien. Eska diezaiogun Jaunari.
- Egin dezagun otoitz hemen bilduak gaudenon alde eta ospakizunean buru egiten duenaren alde ere. Jaunak gure otoitza entzun dezan, eta gure eskariak Bere gogoko izan daitezen beti. Eska diezaiogun Jaunari.

Jainko Jauna, eskubetez ereiten duzu gure bihotzetan egiaren eta graziaren hazia; entzun gure otoitzak eta emaguzu gugan erein duzuna itxaropen apalez onartzea. Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Jaunartze-ondorengo otoitza

**Jauna, hartu dugun sakramentuak
fededunok Zurekin bat garela adierazten duen bezala,
egin dezala Elizaren batasuna.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.**

Ekainaren 23an
URTEAN ZEHARREKO XII. IGANDEA

Agurra

Jaungoiko gure Aitaren eta Jesu Kristo gure Jaunaren grazia eta bakea zuekin.

Sarrerako oharpena

Gure bizitzan bakea eta lasaitasuna jartzen du Jesusek. Zailtasunen erdian bere ondoan, konfiantzaz irauteko deia egiten zaigu, bere presentzia eskertzeko deia.

Eukaristiak, Jainkoaren dohainak, laguntzen digu horretan eta sendotzen du, zalantzarik gabe gure fedea.

Damu-otoitza

Jesu Jaunak hitzaren eta Eukaristiaren mahaira dei egiten digu eta, horretarako, bihotz-berri gaitzela eskatzen. Aitor ditzagun, beraz, geure bekatuak eta eska dezagun uste osoz Jainkoaren errukia.

- Jesus Jauna, Aitagana garramatzan bidea: erruki, Jauna.
- Jesus Jauna, herri guztiak argitzen dituen egia: Kristo, erruki.
- Jesus Jauna, mundua eraberritzen duen bizia: Erruki, Jauna.

Erruki dakigula Jainko guztiz ahaltsua, eta, gure bekatuak barkaturik, eraman gaitzala betiko bizira.

Otoitza

**Izan dezagula beti, Jauna,
 zure izenarekiko begirunea eta maitasuna,
 ez baitituzu zeure eskutik behin ere uzten
 zeure maitasunean sendo jarri dituzunak.**

**Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta Errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan.**

Hitzaren liturgiari oharpena

Ekaitzaren barrutik hitz eginez, bera dela izadiaren jaun bakarra gogoratuko dio Jainkoak bere morroi Jobi. Jesusek, ekaitza baretuz, bere jainkozko jatorriari buruz galdetzen jarriko ditu ikasleak. San Paulok berriz, etorkizuna agertuko digu «Zaharrarenak egin du; berria hasi da».

Lehenengo irakurgaia (Jb 38, 1. 8-11)

Joben liburutik

Jaunak ekaitzaren erditik erantzun zion Jobi: «Nork itxi zuen itsasoa atez, amaren sabeletik indarka atera zenean? Nik eman nizkion hodeiak soinekotzat eta behe-lainoa haur-zapitzat. Nik ezarri nizkion mugak, atea eta morroiloak ipiniz, eta esan nion: "Honaino iritsiko zara, ez aurrerago; hemen lehertuko da zure olatuen harrokeria"».

Erantzun-salmoa (Sal 107 [106], 23-24. 25-26. 28-29. 30-31)

Es - ke - rrak Jau - na - ri, A - ren mai - ta - su - na be -
ti - ko - a bait da.



- ¶. Itsasora jo zuten **ontzietan**
 salerosketan jarduteko ur **handietan**,
 eta Jaunak eginak ikusi zituzten,
 haren egintza harrigarriak itsaso **zabalean**. ¶.
- ¶. Haren esanera ekaitz-haize**a** jaiki zen,
 olatu handi**ak** harrotuz.
 Zeruan gora, leizean behera **ibili** ziren,
 barrua zorab**ioz** larri. ¶.
- ¶. Baina larrialdian Jaunari deiadar **egin** zioten,
 eta libratu zituen est**tu**alditik.
 Ekaitza barealdi bi**hurtu** zuen
 eta olatuen orroa isil**du** egin zen. ¶.
- ¶. Poztu ziren bare**re**aldiaz,
 eta beren gogoko portura eraman zit**u**en Jaunak.
 Gorets bezate Jauna agertu duen maitas**un**agatik,
 gizakien alde egiten dituen gauza harrigar**ri**engatik! ¶.

Bigarren irakurgaia (2 Ko 5, 14-17)

San Paulo Apostoluak Korintoarrei egindako bigarren gutunetik

Senideok: Kristoren maitasunak behartzen gaitu, jakinik bat denengatik hil dela eta, ondorioz, denak hil direla. Kristo denengatik hil da, bizi direnak ez daitezten berentzat bizi, beraiengatik hil eta piztu den harentzat baizik.

Beraz, hemendik aurrera guk ez dugu inor giza ikuspegi hutsez balioztatuko; eta noizbait Kristo giza ikuspegi hutsez balioztatu izan

badugu ere, orain ez dugu hala egiten. Beraz, Kristorena dena sorkari berri da; zaharrarenak egin du, berria sortu da.

Aleluia (Lk 7, 16)



∇. Profeta handia sortu da gure artean,
eta Jainkoa bere herria salbatzera etorri da. √.

Ebanjelioa (Mk 4, 35-41)

Homiliarako argibideak

Zergatik zarete hain beldur?

Jesus eta haren ikasleak doazen itsasontzia ekaitz batek jo du, Galileako aintziran udako egun batzuetan ezustean eta harro sortzen diren ekaitz haietako batek. Markosek pasadizo hori deskribatu du, une zailak bizi dituzten kristau-elkarteen fedea esnatzeko.

Kontakizuna ez da istorio lasaigarri bat, gaur egungo kristauak kontsolatzeko, Jainkoaren babesa aginduz, Elizari historian patxadan ibiltzeko aukera emateko. Jesusen dei erabakitzailea da, une zailtan berarekin itsasbidea egiteko: «*Zergatik zarete hain koldar? Oraino ez al duzue federik?*».

Hasieratik prestatu du Markosek pasadizoa. Esan digu «*arratsa zela*». Laster estaliko du aintzira gau ilunak. Jesus izan da itsasbide arraro horren eragilea: «Goazen beste ertzerara». Esapidea ez da batere inozentea. Elkarrekin joatera gonbidatu ditu, ontzi berean, beste

mundu baterantz, ezaguna dutena baino harago: Dekapolis lurralde paganorantz.

Bat-batean, urakan zakar bat jaiki da, eta uhinek gogor jotzen dute ontzia, urez betez. Patetikoa da eszena: brankan, ikasleak borrokan, ezinean, ekaitzaren kontra; txopan, txoko altuxeagoan, Jesus lo, kuxin baten gainean.

Izaturik, Jesus esnatu dute ikasleek. Ez dute sumatu Aitarekiko Jesusek duen konfiantza. Harengan ikusi duten gauza bakarra, beraietaz axolarik ez izatea da. Beldurrak jota ageri dira eta urduri: «*Maisu, ez al dizu inporta gu hondoratzea?*».

Jesusek ez du zuritu bere jarrera. Zutik jarri eta konjuru antzeko bat bota du: haizea gelditu eta dena bare-bare egin da. Bake eta isiltasun handi horiez baliatuz, bi galdera egin dizkie Jesusek, guganaino iritsi diren hauek: «*Zergatik zarete hain koldar? Oraino ez al duzue federik?*».

Zer ari zaigu gertatzen kristauei? Zergatik gara hain beldur aldi erabakigarri hauei aurre egiteko?, zergatik hain konfiantza txikia Jesusengan? Blokeatzen gaituena, ez ote da hondoratzeko beldur hori? Ez ote da segurtasun bila itsu-itsu ibiltzea, aldi hauen irakurketa buru argiagotz, erantzukizun handiagotz eta konfiantza biziagotz egitea eragozten diguna? Zergatik gara hain uzkur, ez ikusteko, Jainkoa dela Eliza gidatzen duena Jesusi eta haren Ebanjelioari leialago izatera? Zergatik bilatzen dugu segurtasuna iraganean ezaguna eta eraikia genuen hartan?, zergatik ez dugu entzun nahi «beste ertzeraz igarotzeko» Jesusen deia?, Jainkoaz axolagabe den, baina hartarainoko esperantza-beharra duen munduan Berri Ona apal-apal ereiteko.

Jainkoaren herriaren otoitza

Gure begirada Jaunari zuzenduz, itxaron dezagun konfiantzaz bere salbamenaren indarra:

- Frantziszko Aita Santuaren alde, Jose Ignazio gure Gotzainaren alde, apaiz eta zerbitzari guztien alde. Eska diezaiogun Jaunari.
- Ikertzaileen lanen alde, guztien lanaren alde, bakearen eta ongizatearen alde. Eska diezaiogun Jaunari.
- Jaunari eskainita bizi direnen alde, gure elkarteetako erlijioso eta erlijiosoen alde. Eska diezaiogun Jaunari.
- Gure kristau elkateetan on egiten duten guztien alde, behartsuen eta gaixoen zerbitzuan bizi direnen alde. Eska diezaiogun Jaunari.

Jesu Kristo Jauna, gure ahultasunean konfiantza izan duzu Zure hitzaren iragarle izateko; entzun gure otoitzak eta eutsiguzu Espirituaren indarrez, gure fedez inoiz lotsa ez gaitezen baizik eta ausardiaz aitor dezagun gizakien aurrean, azken etorrerako egunean ere gure aldeko izan zaitezzen zeruko Aitaren aurrean. Errege bizi baitzara gizaldi eta gizaldietan.

Jaunartze-ondorengo otoitza

**Kristoren Gorputz santuaz eta Odol baliotsuaz
berritu gaituzu, Jauna;
egizu, misterio santu honetan parte hartzeak
ekar diezagula egiazko erospena.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.**

Ekainaren 30ean
URTEAN ZEHARREKO XIII. IGANDEA

Agurra

Jauna zuekin.

Sarrerako oharpena

Jaunak bildu gaitu aldarearen inguruan. Jainkoa da bizia ematen diguna, bera da gure itxaropena eta gure etorkizuna. Altxatzera deitzen gaitu, konfiantzaz bizitzera, Bera eta hurkoa maitatzera. Betiko bizia ez da etorkizun hutsa: hemen hasten da, gaur hasten da.

Damu-otoitza

Kristok bekatuaren eta heriotzaren gain lortu duen garaipena ospatzen dugu igandean. Aitor dezagun zeruetako Aitaren errukiaren beharrean garela, bekaturako hilik bizi berrira piztu gaitzen.

—Jesus Jauna, egiaren eta graziaren **bet**ea zarena: erruki, Jauna.

—Jesus Jauna, gu aberasteko zeure burua behar**tsu** egin duzuna: Kristo, erruki.

—Jesus Jauna, gurekin zeure herri santua egitera **et**orri zarena: Erruki, Jauna.

Erruki dakigula Jainko guztiz ahaltsua, eta, gure bekatuak barkaturik, eraman gaitzala betiko bizira.

Otoitza

Oi Jainko,
seme-alabatzat hartu gaituzu maitasunez
eta argiaren seme-alaba egin gaituzu;

**egizu, ez gaitzala inguratu gezurraren ilunpeak
eta bizi gaitezela beti zure egiaren argi ederrean.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta Errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan.**

Hitzaren liturgiari oharpena

Jainkoak bizitzeko sortu gintuen. Jesusen egintza guztiak ere bizitzaren aldekoak izan ziren. Poztu egiten da Jauna gauza guztien garapen ona ikustean. Horregatik, heriotzak ez du azken hitza, baizik eta bizia ateratzen da garaile.

Lehenengo irakurgaia (*Jak 1, 13-15; 2, 23-24*)

Jakinduria liburutik

Ez zuen Jainkoak egin heriotza, ez du atsegin bizidunak galtzea; izan ere, irauteko egin zituen hark gauza guztiak; munduko izakiak osasungarri dira, ez dute beren baitan pozoi hilgarririk, eta Herioek ez du lurrean aginterik, hilezkorra baita zuzentasuna. Hilezkor izateko egin zuen Jainkoak gizakia, bere izatearen irudi egin zuen; baina deabruaren inbidiaz sartu zen heriotza munduan eta harenak direnek jasango dute.

Erantzun-salmoa (*Sal 30 [29], 2 eta 4. 5-6. 11-12a eta 13b*)

Jau-na-ri kan - ta, o-na bai - ta, hain du haun-di-
a be - re be - ti - ko e - rru - ki - a.



- ∞. Goratzen zaitut, Jauna, onik atera nauzulako,
etsaiei nire lepotik pozten utzi ez diezulako.
Jauna, Herio-leizetik atera nauzu,
zulora jaistear nengoela biziberritu. R̃.
- ∞. Kanta Jaunari, haren fededunok, ‘
goretsazue, haren santutasuna gogoratuz.
Une baterako da haren haserrea,
bizi guztirako haren onginahia.
Arratsean negarra da gurean, poz-oihua goizean. R̃.
- ∞. «Entzun, Jauna, eta erruki nitaz,
izan zakizkit laguntzaile, Jauna».
Negarra dantza bihurtu didazu,
Jauna, ene Jainkoa, eskerrak emango dizkizut beti. R̃.

Bigarren irakurgaia (2 Ko 8, 7. 9. 13-15)

San Paulo Apostoluak Korintoarrei egindako bigarren gutunetik

Senideok: Gauza guztietan aberats zarete: sinesmenean, hitz egiteko gaitasunean, jakintzan, denerako arduran eta guganako maitasunean; izan zaitezte aberats eskuzabaltasunean ere. Ezaguna duzue Jesu Kristo gure Jaunaren eskuzabaltasuna: aberats izanik, behartsu egin zen zuengatik, bere behartsu izateaz zuek aberats egiteko. Arazoa ez da besteak lasai egoteko zuek larri gertatzea, guztien berdintasuna bilatzea baizik.

Une honetan, zuen ugaritasunak haien eskasia konponduko du, eta egunen batean haien ugaritasunak zuen eskasia konponduko du; honela, parekotasuna izango da nagusi, Liburu Santuak dioen bezala: «Asko bildu zuenak ez zuen sobera, ezta gutxi bildu zuenak ere urri».

Aleluia (2 Tm 1, 10)

A - le - lu - ia, a - le - lu - ia.



∇. Kristo Jesus gure salbatzaileak heriotza ezereztu du eta bizia argitu Berri Onaren bidez. ∇.

Ebanjelioa (Mk 5, 21-43)**Homiliarako argibideak***Emakume baten fede handia*

Harrigarria da pasadizoa. Markos ebanjelariak emakume ezezagun bat dakarkigu fede-eredutzat, kristau-elkarteentzat. Harengandik ikasi ahal dute nola ibili Jesusen bila fedez, nola iritsi Jesusekin harreman sendagarria izatera eta nola topatu Jesusengan biziera berri bati, bakezko eta osasungarri bati, ekiteko indarra.

Jairo, «sinagogako buruzagi» eta Kafarnaumeko gizon ezagun hura, ez bezala, emakume hau ez da inor. Ezkutuko gaixotasuna, tipikoki femeninoa, duela dakigu soilik, emakume, emazte eta ama bezala osasuntsu bizitzea eragozten dion gaixotasuna.

Sufrimendu fisiko eta moral handia du. Dena xahutu du medikutan, inork sendatu gabe. Halere, ez du amore eman, beti emakume gaixo bezala bizitzera jarritz. Bakarrik dago. Inork ez dio lagundu Jesusengana hurbiltzen, baina aurkitu du harengana hurbiltzeko modua.

Ez dago planto eginik, Jesusek hurbildu eta eskuak noiz ezarriko. Berak jo du haren bila. Eragozpen guztiak gainditu ditu. Ahal duen eta dakien guztia egin du. Jesusek ulertu du bizitza sanoago baten bila dabilela. Konfiantza osoa jarri du Jesusen indar sendatzailean.

Emakumea ez da konformatu Jesus urrunetik ikustearekin. Harreman zuzenagokoa eta pertsonalagoa nahi du. Deliberatuki jokatu du, baina ez eroa bezala. Ez du inor gogaitu nahi. Atzetik hurbildu, jende artean, eta Jesusen soingainekoa ukitu du. Keinu samur horrekin zehaztu eta adierazi du Jesusengan duen konfiantza osoa.

Ezkutuan gertatu da dena, baina emakume horren fedearen berri guztiek izan dezaten nahi du Jesusek. Emakumeak, beldurti eta dardar, egin duena aitortzean, Jesusek diotso: «Ene alaba, zeure fedea sendatu zaitu. Zoaz bakean eta osasuntsu». Emakume hau, Jesusengan Jainkoak eskaini digun salbazio bila ibiltzeko eta onartzeko azaldu duen ahalbidearekin, fede-eredu bihurtu da gu guztiontzat.

Zeinek laguntzen die gaur egungo emakumeei Jesusekin topo egiten? Zein ahalegintzen da, gaur egungo Elizan aurkitzen dituzten oztopoak ulertzen, Kristorekiko beren fedea «bakean eta osasuntsu» bizi ahal dezaten? Zeinek hartzen ditu aintzat emakume teologoen fedea eta ahaleginak?, kasik inolako sostengurik gabe eta era guztietako trabak eta ukoak gaindituz, emakumeari bideak irekitzen atsedenik gabe saiatzen direnean, Jesusen Elizan duintasun handiagoz bizi ahal izateko?

Emakumeek ez dute izaten gure artean Jesusek eskaintzen zien onarpenik, balio-aitorpenik eta ulermenik. Ez dakigu Jesusek begiratzen zien bezala begiratzen. Halaz guztiz, emakumeak dira, sarritan, gaur ere gure kristau-elkarteen sostengu Jesusekiko beren fediaz eta beren arnasa ebanjelikoaz.

Jainkoaren herriaren otoitza

Eska diezaiogun Jaunari, senideok, entzun ditzala konfiantzaz eta pozez egiten dizkiogun otoitzak:

- Eska diezaiogun Kristo Jaunari bere bizitza Jaunaren zerbitzura sagaratu duten Eliz zerbitzarien alde eta egiazko Jainkoa gurtzen duten herri guztien alde.
- Eska diezaiogun mundua jakinduriaz gobernatzen duen Jainkoari gu guztion alde, mundua eta natura bereziki arretaz eta esker onez zaindu dezagun.
- Eska diezaiogun Jainko errukitsuari giza ahultasunaren, gorrotoaren eta enbidiaren sareetan lotuta bizi diren guztien alde.
- Eska diezaiogun Jaunari batak bestearen alde, jar dezagun gure bizitza Beraren eskuetan eta egiogun otoitz uste onez gauza guztien Egile eta Nagusi denari.

Jainko Jauna, Zure Seme behartsu eta gurutziltzatuaren misterioan aberastu egin gaituzu; entzun gure otoitzak eta egizu Ebanjelioaren poza hots egiten dugunean ez gaitezela gurutzeaz eta behartsuez lotsatu. Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Jaunartze-ondorengo otoitza

Eskaini eta hartu dugun opari santuak biziberri gaitzala, Jauna, maitasunean etengabe Zurekin bat eginik, beti iraungo duten fruituak eman ditzagun. Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Uztailaren 7an
URTEAN ZEHARREKO XIV. IGANDEA

Agurra

Gure bihotza Jainkoa maitatzera zuzentzen duen Jauna izan bedi zuekin.

Sarrerako oharpena

Igandeko Eukaristian bildu gara, askatasun osoz. Askatasun horrek eraman gaitzake Jainkoa baztertzerare, baina gu hemen gaude, pozik. Salbamenaren oparia onartzeko gogoz. Bihotzera mintzo zaigun Jainkoari entzun nahiez. Ospa dezagun pozik misterio hau.

Damu-otoitza

Eukaristi ospakizun honen hasieran, eska diezaiogun Jainkoari bihotz-berritzearen grazia; horrela baketzea lortuko dugu eta elkartuago egongo gara Jainkoarekin eta geure senideekin.

—Jesus Jauna, gu kondenatzera ez, baizik salbatzera **etorri** zarena: erruki, Jauna.

—Jesus Jauna, bihotz-berritzen den bekatari bakar batengatik, zeruan poz handia izango dela **esan** zenuena: Kristo, erruki.

—Jesus Jauna, asko maite izan duenari asko barkatzen diozuna: Erruki, Jauna.

Erruki dakigula Jainko guztiz ahaltsua, eta, gure bekatuak barkaturik, eraman gaitzala betiko bizira.

Otoitza

**Oi Jainko, zure Semearen beheratzeaz,
 jaso egin duzu eroria zegoen mundua;**

eman zeure fededunei egiazko pazko-poza,
 bekatuaren uztarpetik askatu dituzunek
 goza dezatela betiko zoriona.
 Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
 Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
 Jainko eta Errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan.

Hitzaren liturgiari oharpena

Jainkoaren handitasuna, gizon-emakumeon txikitasunean eta ahultasunean agertzen da. Ezaugarri handiak espero dituenak ez, baizik eguneroko jardunean pozik bizi denak aurkitzen du egiaz Jainkoaren agerpena.

Lehenengo irakurgaia (Ez 2, 2-5)

Ezekielen Profezia liburutik

Egun haietan, Jaunaren espiritua sartu zen niregan eta zutik jarri ninduen, eta hitz egiten zidanari entzun nion esaten: «Gizaseme, israeldarregana bidaltzen zaitut, jende bihurri horregana; horiek eta horien arbasoak nire aurka altxatu dira gaurdaino. Seme-alaba burugogor eta setatsu horiengana bidaltzen zaitut nire mezua adieraztera. Horrela, entzun ala ez, jakingo du herri bihurri horrek baduela profeta bat bere artean».

Erantzun-salmoa (Sal 123 [122], 1. 2. 3-4)

E - rru - ki hu - tsa du - gu Jau - na, e - rru - ki - a
 ta mai - ta - su - na.



- ∞. Zugana jasotzen ditut **begiak**,
zeruan errege zaren hor**re**gana. ∞.
- ∞. Nola morroien begiak nagusien esku**et**ara
eta neskamearen begiak etxekoandrearen esku**et**ara,
hala daude gure begiak Jaun**ag**ana,
gure Jainkoagana, gutaz erruki dadin **ar**te. ∞.
- ∞. Erruki gutaz, Jauna, **er**ruki!
Buruz gain gaude **mes**pretxuz,
buruz gain ustetsu**en** burlaz,
harroen irai**ne**z. ∞.

Bigarren irakurgaia (2 Ko 12, 7-10)

San Paulo Apostoluak Korintoarrei egindako gutunetik

Senideok: Neure burua den baino handiagotzat jo ez dezadan, haragian sartua dudan eztena eman zait, jo eta jo ari zaidan Satanasen ordezkaria, harro ez nadin. Hiru aldiz eskatu diot Jaunari, ken diezadala, baina hark esan dit: «Nahikoa duzu nire laguntza, nire indarra ahulezian gauzatzen baita bete-betean».

Pozik harrotuko naiz, beraz, neure ahuleziaz, Kristoren indarra bizi dadin nigan. Pozik nabil, beraz, Kristogatik jasaten ditudan ahulezia, laido, beharrizan, erasoaldi eta estualdietan. Ahul naizenean, orduan bainaiz indartsu.

Aleluia (Ik. Lk 4, 18)



Ⲛ. Behartsuei Berri Ona ematera bidali nau Jaunak, gatibuei askatasuna hots egitera. Ⲛ.

Ebanjelioa (Mk 6, 1-6)

Homiliarako argibideak

Bereen artean ukatua

Jesus ez da Tenpluko apaiz bat, erlijioa zaintzera eta sustatzera emana. Ez du hartzen inork Lege-maisutzat ere, Moisesen Tora defenditzera emandakotzat. Galileako baserri-jendeak, haren keinu sendatzaileetan eta haren suzko hitzetan, Jainkoaren Espirituak eragina den profeta baten jarduera ikusten du.

Jesusek badaki bizitza zaila eta gatazkatsua izango duela. Erlijio-buruzagiek aurre egin diote. Profeta ororen zoria da. Ez du barruntatzen artean, hain xuxen bereek egingo diotela uko, haurtzarotik hobekien ezagutzen dutenek.

Esan daiteke, Nazareteko herrian Jesusi egin zioten ukoa oso komentatua izan zela lehen kristauen artean. Hiru ebanjelarik xeheki jaso dute pasadizoa. Markosen arabera, ikasle-talde bat lagun duela iritsi da Jesus Nazaretera, eta profeta sendatzaile baten fama duela. Jesusen auzotarrek ez dakite zer pentsatu.

Larunbata iristean, herriko sinagoga txikira doa Jesus. Eta «irakasten hasi da». Auzokoek eta familiartekoek doi-doi entzuten diote. Galdera-mota asko dituzte beren artean. Haurtzarotik dute ezaguna Jesus: auzotar bat gehiago da. Non ikasi du mezu harrigarri hori Jainkoaren erreinuaz? Nondik datorkio sendatzeko ahalmen hori? Markosek dio, «gutziz nahasirik zeuzkala». Zergatik?

Landa-jende hark uste du dena dakiela Jesusez. Haurtzarotik moldatu dute hartaz beren ideia. Beren aurrean agertu zaien bezala onartu ordez, hartaz duten irudiak blokeatu egin ditu. Irudi horrek ez die

utzi Jesusen baitan den misterioari bihotza irekitzen. Gogor egin diote harengan Jainkoaren hurbiltasun salbatzailea ikusteari.

Bada besterik ere. Profetatzat onartzeak, Jainkoaren izenean agertu dien mezua entzuteko prest egotea eskatuko lieke. Eta horrek arazoak ekartzen ahal lizkieke. Beren sinagoga dute, beren liburu sakratuak eta beren tradizioak. Bakean bizi dute beren erlijioa. Jesusen presentzia profetikoak herrixkako bakea hausten ahal du.

Kristauk irudi aski desberdinak ditugu Jesusez. Denak ez datoz bat hurbiletik ezagutu eta jarraitu ziotenen irudiarekin. Nork bere irudia dugu Jesusez. Irudi honek baldintzatzen du fedea bizitzeko era. Jesusez dugun irudia pobrea, erdizkakoa edo desitxuratua bada, pobrea, erdizkakoa edo desitxuratua izango da gure fedea.

Zergatik saiatzen gara hain gutxi Jesus ezagutzen?

Zergatik eskandalizatzen gaitu haren giza ezaugarriak gogoratzeak?

Zergatik egiten diogu gogor Jainkoa Profeta batengan haragitu dela aitortzeari?

Haren bizitza profetikoak geure elkarteak eta gu geu sakon eraldatzera behartuko gintuzkeela barruntatzen dugulako ote?

Jainkoaren herriaren otoitza

Senideok: eska diezaiogun Jaunari entzun ditzala gure otoitzak:

- Egigun otoitz Frantzisko Aita Santuaren eta Jose Ignazio gure gotzainaren alde; Jaunak eman diezaiela adorea eta argia beren ardurapeko elkarteak santutasunez zaindu ditzaten. Eska diezaiogun Jaunari.
- Egigun otoitz Jaunak egiazko bakea eman diezagun; bakearen egiazko iturria denak eman diezagula bizikidetza baketsua eta barneko espirituzko-bakea. Eska diezaiogun Jaunari.

—Egigun otoitz Ebanjelioaren bidean zintzo saiatzen diren guztien alde, Jaunak asmo horretan lagun diezaiei; eta berekoikeriak Jainkoarengandik urruntzen dituenak izan dezatela bihotz berria iristeko grazia. Eska diezaiogun Jaunari.

—Egiogun otoitz Jainkoari hildakoen alde, bereziki gure senide, adiskide eta ongile hildakoen alde. Jaunak bere erruki handiz bere aintzan onar ditzan santu eta aukeratu guztien artean. Eska diezaiogun Jaunari.

Entzun, Aita guztiz santua, gure otoitzak eta argi gaitzazu Zure Espirituaren argiaz, behartsu eta ahulak garela ahaztu gabe Kristoren Piztueraren indarra goza dezagun. Errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan.

Jaunartze-ondorengo otoitza

**Mugarik gabeko zeure maitasunaren dohainez
janaritu gaituzu, Jauna;
egizu, lor ditzagula salbamen-fruituak
eta bizi gaitzela beti Zu goresten.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.**

Uztailaren 14an
URTEAN ZEHARREKO XV. IGANDEA

Agurra

Jainko Aitagandik eta Jesu Kristo Jaunagandik bakea, maitasuna eta sinesmena zuekin.

Sarrerako oharpena

Jainkoaren Hitza entzun eta bere Ogi santua partekatuko dugu Igandeko ospakizun honetan. Jesus Jauna ez da aspertzen guri bere maitasuna emateaz. Berak bidaltzen gaitu gaur ere hemen ospatutakoa gozatuz Berri Ona zabaltzera. Eukaristiak indar gaitzala ospakizun eder eta eginkizun bikain honetarako.

Damu-otoitza

Hurbil gaitezen Jainko zuzenagana, apalik eta bihotz-damuturik, eta, geure burua bekatari aitortuz, eska diezaiogun errukia Jainkoari

- Jesus Jauna, galdurik zegoena bilatzera **etorri** zarena: erruki, Jauna.
- Jesus Jauna, guztion erospenerako zeure bizia **eman** duzuna: Kristo, erruki.
- Jesus Jauna, zeure seme-alaba sakabanatuak **biltzen** dituzuna: Erruki, Jauna.

Erruki dakigula Jainko guztiz ahaltsua, eta, gure bekatuak barkaturik, eraman gaitzala betiko bizira.

Otoitza

**Oi Jainko, okerbidean dabiltzanei
 zeure egiaren argia agertzen diezu
 bide zuzenera itzul daitezten;**

**egizu, beren burua kristautzat daukatenek
utz dezatela izen horrekin bat ez datorren guztia
eta bete izen horri dagokiona.**

**Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta Errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan.**

Hitzaren liturgiari oharpena

Amos bezala, ikasleak bezala bidaliak gara gu ere: baliabide askorik gabe, behar bada, baina enkargu garrantzitsu batekin: mundua berritu, egiturak aldatu, Jainkoaren maitasuna aldarrikatu.

Lehenengo irakurgaia (*Am 7, 12-15*)

Amosen profezia liburutik

Egun haietan, Amatziasak, Betelgo apaizak, esan zion Amosi: «Ikusle, zoaz, alde hemendik Judako lurraldera. Egin han profetarena eta irabazi zeure ogia. Baina ez jardun gehiago profetagintzan Betelen, hau errege-santutegia baita eta erreinuko jauretzea».

Amosek erantzun zion Amatziasi: «Ni ez naiz ogibidez profeta, abeltzaina naiz eta basapiku-biltzailea. Abeltzain nabilela hartu ninduen Jaunak eta bere herri Israeli profetizatzerara bidali».

Erantzun-salmoa (*Sal 85 [84], 9ab-10. 11-12. 13-14*)

Jau - na, zu - re on - gi - nai - a e - ra - kus e - zai - gu -
zu, zu - re sal - ba - me - na e - mai - gu - zu.



- ∞. Entzungo dut Jainkoak **di**oena:
Jaunak bakea agintzen die bere herriari eta **fed**edunei.
Hurbil dute salbamina begirune **di**otenek;
bai, gure lurraldean kokatuko da Jaun**a**ren aintza. ∞.
- ∞. Maitasunak eta leialtasunak elkar **dute** aurkitzen,
justiziak eta bakeak elkar **besar**katzen.
Leialtasuna lurretik **da** ernetzen,
justizia **zer**utik jaisten. ∞.
- ∞. Jaunak emango **du** euria,
eta gure lurak ekarriko **bere** uzta.
Haren aurretik joango da **just**izia,
haren urratsei jarraituko die ong**i**zateak. ∞.

Bigarren irakurgaia (Ef 1, 3-14 edota 3, 10) *Kako arteko zatia utz daiteke.*

San Paulo Apostoluak Efesoarrei egindako gutunetik

Bedeinkatua izan bedi Jainkoa, Jesu Kristo gure Jaunaren Aita, zeruan, Kristoren bitartez, Espirituaren era guztietako ondasunez bedeinkatu gaituena! Kristogan aukeratu gintuen, mundua sortu baino lehen, santu eta errugabe izan gaitezen beraren aurrean, maitasunez. Bere onginahiak eraginda aurrez zuen erabakia, Jesu Kristoren bitartez gu seme-alabatzat hartzea, bere Seme maiteagan eskuzabal eman digun dohain zoragarria gorespen-kantu bihur dadin berarentzat.

Seme honen heriotzaz dugu askapena, bekatuen barkamena, Jainkoaren onginahi eskuzabalarari esker; oparo isuri du bere onginahiaren dohaina, jakinduria eta ezaguera osoa guri eman ez. Bere asmo ezkutua ezagutarazi digu, bere onginahiak erabakia zuen

asmoa: historia bere betera eramateko, zeruko nahiz lurreko gauza guztiak Kristogan biltzea, berau buru dela.

[Kristoren bitartez gara oinordeko gu ere, israeldarrok, lehendik Mesiasengan itxaroten genuenok, gauza guztiak berak nahi bezala egiten dituen Jainkoak aurrez aukeratu baikaitu bere asmoaren arabera, beraren aintzaren gorespen-kantu izan gaitezen.

Eta zuek ere egiaren mezua, salbatzen zaituzten Berri Ona, entzun eta Mesiasengan sinetsi duzuenok, agindutako Espiritu Santuaz zigiluz bezala markatuak izan zarete. Espiritua da hartuko dugun ondarearen bermea, Jainkoak bere egin duen herria askapen osora iritsiko denaren bermea, Jainkoaren aintzaren gorespen-kantu izateko.]

Aleluia (Ik. Ef 1, 17-18)



∇. Jesu Kristo gure Jaunaren Aitak
argi ditzala gure bihotzeko **begiak**,
jakin dezagun zer itxaroterata dei egin digun. ∇.

Ebanjelioa (Mk 6, 7-13)

Homiliarako argibideak

Ebanjelizazio aro berria

Frantzisko aita santua, «Jesusen pozaren ukituko ebanjelizazio-aro berri» baterako deika ari zaigu. Zer izan daiteke, ordea, hori? Zein

izan daiteke berorren berritasuna? Zer behar dugu aldatu? Zein izan zen egiaz Jesusen asmoa, ikasleak bere eginkizun ebanjelizatzailea luzatzera bidali zituenean?

Markosen kontakizunak argi uzten du, Jesus bakarrik dela beraren jarraitzaileen egintza ebanjelizatzailearen iturria, inspiratzailea eta eredia. Ez dute ezer egingo beren izenean. Jesusen «bidaliak» dira. Ez dira izango beren buruaren predikari: Jesusen Ebanjelioa hots egingo dute, soilik. Ez dute izango beste interesik: soilik, Jainkoaren erreinuari bideak urratzeari emanak biziko dira.

«Jesusen pozaren ukituko ebanjelizazio-aro berri» bat eragiteko era bakarra, Jesusekiko lotura hau garbitu eta indartzea izango da. Ez da izango ebanjelizazio berririk, ez badago ebanjelizatzaile berririk, eta ez da izango ebanjelizatzaile berririk, ez badago Jesusekin harreman biziagorik, argiagorik eta suharragorik. Hura gabe, munduan haren Espiritua sartu ez beste edozer gauza egingo dugu.

Bidali dituztenean, Jesusek ez ditu utzi ikasleak beren indarraren baitan. «Bere aginpidea» eman die; ez da, ordea, gainerakoak kontrolatzeko, gobernatzeko edo dominatzeko boterea, baizik eta «espiritu lohiak bota» ahal izateko beraren indarra da, jendea askatzen duena pertsona eta gizartea esklabutzen, estutzen eta gizatasuna kentzen duen orotatik.

Ikasleek oso ondo dakite zer dien Jesusek gomendatu. Ez dute ikusi hura sekula inor mendean hartzen. Beti ikusi izan dute hura zaurituak sendatzen, sufrimendua arintzen, bizitza eraberritzen, beldurretik liberatzen, Jainkoaganako konfiantza kutsatzen. «Sendatu» eta «liberatu» dira lehenengo egitekoak Jesusen jardueran. Horrek guztiak errotik aldatuko luke gure ebanjelizazioaren aurpegiera.

Biderako premiazkoa berekin dutela bidali ditu. Markosen arabera, «makila, sandaliak eta tunika bat» eramango dute soilik. Ez dute beste ezeren beharrik funtsezkoaren lekuko izateko. Aske eta

loturarik gabe ikusi nahi ditu Jesusek; beti prest, ongizateari lotu gabe; Ebanjelioaren indarrean fidaturik.

Ebanjelio-jarrera hau berreskuratu ezean, ez da izango «ebanjelizazio-aro berririk». Garrantzizkoa ez da jarduera eta estrategia berriak abian jartzea, baizik eta alde batera uztea ohiturak, egiturak, mirabetzak, Ebanjelioaren funtsa egiaz eta xume kutsatzeko aske izatea eragozten diguten neurrian.

Elizan galdu egin dugu Jesusek iradokitzen duen bidari-estilo hau. Eta bidari nagí eta astun bihurtu da Eliza. Ez daki nola lagun egin gizadiari. Ez dugu zalutasunik jada, iragana den kultura batetik gaur egungora igarotzeko. Izan dugun botereari eutsi nahi diogu. Jainkoaren erreinuarekin zerikusirik ez duten gauzetan katramilatzen gara. Bihotz-berritu beharra dugu.

Jainkoaren herriaren otoitza

Senideok: iritsi daitezela gure otoitzak Jaunarengana, gure bihotzak ezagutzen dituenarengana.

- Eska dezagun Jainkoaren Semearen jakinduria Jainkoaren Hitza leialtasunez aldarrikatzen dutenezat eta Eliza zerbitzatzen duten guztientzat.
- Eska diezaiogun egiaren jabe bakarra den Jaunari, katolikoak ez diren beste kristau guztien alde, itun zaharraren herri diren juduen alde eta egiazko Jainkoa ezagutzen duten guztien alde.
- Eska diezaiogun Jesus Salbatzaileari etxetik urruti bizi diren guztien alde, kartzelatuen, ahulen eta zapalduen alde eta pertsegituak direnen guztien alde.
- Eska diezaiogun fedez zeruko Jaunari, hemen, bere etxean bilduak gauden guztion bakearen eta zorionaren alde.

Entzun, Aita ahalguztiduna, gure otoitzak eta erakutsiezaguzu Zure Seme maitearen bitartez emandako guztiak eskertzen, Espiritu Santuaz beterik, hitzez eta egitez Zure salbamen asmoaren berri eman diezaiozun munduari. Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Jaunartze-ondorengo otoitza

**Zeure mahaian janaritu gaituzu, Jauna;
egizu, misterio hauetan parte hartzen dugun bakoitzean
sendo dadila gure salbamenaren emaitza.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.**

Uztailaren 21ean
URTEAN ZEHARREKO XVI. IGANDEA

Agurra

Jainko itxaropen-emailea, Espiritu Santuaren egintzari esker bere pozaz eta bakeaz betetzen gaituena, izan bedi zuekin.

Sarrerako oharpena

Jainkoak ez die ezikusi egiten gure neke eta ahultasunei. Eta horrek atsedena ematen digu, bakea ematen digu, poza ematen digu. Jainkoaren maitasun-mezu hori entzutera bildu gara Eukaristian. Artzain onaren deia entzun eta bere maitasunean murgildu nahi dugu. Eukaristia poz askoren iturri da. Poztu gaitezen!

Damu-otoitza

Jesu Kristo, bekatuak ez duen gure bitartekoa, otoitzean ari da gure alde eta adiskidetu egiten gaitu Aitarekin. Ireki dezagun, bada, geure espiritua damurako, Jaunaren mahaira hurbiltzeko gai izan gaitezen.

—Jesus Jauna, Pedro damutuari barkamena eskaini zeniona: erruki, Jauna.

—Jesus Jauna, lapur onari paradisua agindu zeniona: Kristo, erruki.

—Jesus Jauna, bekatuen barkamenerako apostoluei Espiritu Santua eman zeniena: Erruki, Jauna.

Erruki dakigula Jainko guztiz ahaltsua, eta, gure bekatuak barkaturik, eraman gaitzala betiko bizira.

Otoitza

**Begira, Jauna, begi onez zeure zerbitzarioi
eta emazkiguzu ugari zeure graziaren dohainak,
fedez, esperantzaz eta maitasunez suturik
zure aginduak betetzen erne iraun dezagun.**

**Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta Errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan.**

Hitzaren liturgiari oharpena

Atsedena, lasaitasuna, zoriona... beti bilatzen ditugu gizon-emakumeok eta bereziki bizi dugun aldi honetan. Jainkoak horixe eskaintzen digu, bere ondoan atsedean hartzeko aukera, bizitza lasaitasunez eta egonkortasunez bizitzeko bidea.

Lehenengo irakurgaia (*Jr 23, 1-6*)

Jeremias Profetaren liburutik

«Zoritzarrekoak nire larreko artaldea sakabanatzen eta galtzen uzten duten artzainak».

Beraz, honela mintzo zaie Jauna, Israelen Jainkoa, herria gidatzen duten artzainei: «Zuek sakabanatu eta jaurti dituzue nire ardiak eta ez zarete haietaz arduratu. Ba, kontuak eskatuko dizkizuet zeuen jokabide txarragatik –dio Jaunak–.

Nik bilduko ditut bizirik geldituriko neure ardiak, sakabanatu nituen lurralde guztietatik; beren larreetara ekarriko ditut berriro, eta hazi eta ugaritu egingo dira. Ongi zainduko dituzten artzainak sortuko dizkiet; ez dira inoiz beldurtuko, ez izutuko, eta ez da bat ere galduko –dio Jaunak–.

Hau dio Jaunak: «Badatoz egunak, eta egun horietan legezko muskila sortuko diot Davidi. Errege zentzudun bezala gobernatuko du eta zuzenbidea eta justizia ezarriko du lurrean. Haren egunetan Juda salbatuko da eta Israel seguru biziko. Eta izen hau emango diote: “Jauna gure justizia”».

Erantzun-salmoa (*Sal* 23 [22], 1-3. 4. 5. 6)

Jau - na dut ar- tzain, ez naiz e- ze - ren be - ha-rr- e - an.

- ∞. Jauna dut artzain, ez naiz ezeren beharrean;
larre gurietan etzanarazten nau,
ur-bazter lasaira eramaten ‘
eta indarrak dizkit berritzen;
bide segurutik narama, ‘
bere izenari ohore eginez. ∞.
- ∞. Ibar beltz ilunean banabil ere,
ez naiz gaitzaren beldur,
Zu nirekin baitzaude;
zure artzain-makilak lasaitzen nau. ∞.
- ∞. Mahaia atontzen didazu
etsaien begi-bistan;
olioz gantzutzen didazu burua,
gainezka dut edontzia. ∞.
- ∞. Zoriona eta maitasuna ditut lagun,
bizitzako egun guztietan,
eta Jaunaren etxean biziko naiz
amaigabeko egunetan. ∞.

Bigarren irakurgaia (*Ef* 2, 13-18)

San Paulo Apostoluak Efesoarrei egindako gutunetik

Senideok: Orain, Kristo Jesusengan zaudete. Garai batean urruti zinetenok, hurbildu egin zarete Kristoren heriotzari esker.

Izan ere, Kristo da gure bakea. Bat egin ditu berak bi herriak, bereizten zituen hesia, etsaigoa, deseginez. Bere gorputzean baliogabetu du legea bere agindu eta arauekin, eta bi herriekin beregan gizadi berri bakarra sortu du, bakeak eginez. Bi herriak Jainkoarekin adiskidetu ditu eta gurutzeko heriotzaren bidez gorputz bakar batean elkartu, haien arteko etsaigoa beregan suntsituz.

Bere etorreraz bakearen Berri Ona ekarri zuen: bakea zuei, urruti zinetenoi, eta bakea hurbil zirenei; izan ere, bai batzuk eta bai besteok beraren bidez hurbil gaitzke Aitagana, Espiritu berarengan elkarturik.

Aleluia (*Jn 10, 27*)



∕. Nire ardiek aditzen dute nire ahotsa, **di**o Jaunak;
Nik ezagutzen ditut, eta haiek jarraitu egiten **di**date. ∕.

Ebanjelioa (*Mk 6, 30-34*)

Homiliarako argibideak

Jesusen begiratu

Xeheki kontatu du Markosek pasadizoa. Leku patxadatsu eta bakarti baterantz doa Jesus ontziz ikasleekin. Lasai entzun nahi die, nekaturik itzuli baitira beren lehen ibilaldi ebanjelizatzailetik, eta bidali dituen Profetarekin partekatu nahi baitute beren esperientzia.

Jesusen asmok, ordea, huts egin du. Jendeak antzeman dio nora doan eta, ertzetik korrika, aurea hartu dio. Jesusek eta ikasleek, iritsi direnean, inguruko herrixka guztietatik etorri den jendetzarekin egin dute topo. Zein izango ote Jesusen erreakzioa?

Markosek grafikoki deskribatu du haren jokabidea: ikasleek ikasi beharra dute jendea nola tratatu; kristau-elkarteetan gogoan izan beharko da, nola jokatzeko zuen Jesusek anonimatuaren galdua zen jendearekin, inork kontuan hartzen ez zuenarekin. *«Ontzitik ateratzean, Jesus jendetza ikusi eta hunkitu zen, artzainik gabeko ardiak bezala baitzebiltzan, eta irakasten hasi zitzairen, batere presarik gabe».*

Ebanjelizatzaileak azpimarratu duen lehenengo gauza, Jesusen begiratu izan da. Ez da haserretu bere asmoa huts eginarazi diotelako. Pausatuki jarri zaie begira eta hunkitu da. Jendea Jesusek ez du sekula gogaikarri. Beraren bihotzak sumatu du herrixka haietako landa-jendea zein bide galdurik eta abandonaturik bizi den.

Jendeari Jesusek bezala begiratzen ikasi beharra dugu geure Elizan: askok jasaten duen sufrimena, bakartasuna, nahasmendua edo abandonua sumatuz. Errukia ez da sortzen arauz arduratzetik edo geure betebeharrak gogoan izatetik. Sufritzen dutenei adi-adi begiratzetik sortu ohi da gudan errukia.

Begiratu horrekin konturatu da Jesus jende haren premiarik sakonenaz: *«artzainik gabeko ardiak bezala dabilta»*. Maisuek eta legelariak eskaintzen dieten irakaspenak ez die ematen behar duten janaririk. Beraiez inor arduratzen ez dela bizi dira. Ez dute, ez gidatu, ez defenda ditzakeen artzainik.

Errukiak eraginda, *«batere presarik gabe hasi zaie irakasten»*. Astiro, presarik gabe, Jainkoaren Berri Ona irakasteari emango dio. Ez da ari

derrigorrez. Ez du gogoan bere burua. Jainkoaren Hitza eman nahi die, bizi duten artzain baten premiak hunkiturik ariko da Jesus.

Ezin gelditu gara axolagabe, geure kristau-elkarteetan, hartzen duena baino janari sendoago baten bila dabilen jendea ikusirik. Ezin eman dugu normaltzat Eliza baitan ageri den norabide erlijiosoaren falta. Buru argiz eta erantzukizunez erreakzionatu behar dugu. Ez dira gutxi janari hobe baten bila dabiltzan kristauak. Jesusen irakaspena agertuko dieten artzainak behar dituzte.

Jainkoaren herriaren otoitza

Otoitz egin diezaiogun, senideok, errukiaren Jaunari gure ahultasunean lagun gaitzan, Berak nahi bezala bere izenari dei egin diezaiogun.

- Elizen arteko bakearen alde, kristau guztien batasunaren alde eta gure zorionaren alde. Eska diezaiogun Jaunari.
- Herrietako arduradunen alde, beraien ardurapean bakezko eta ongizatezko bizitza izan dezagun. Eska diezaiogun Jaunari.
- Etxetik urrun direnen alde, gaixoen eta kartzelatuen alde, sufritzen duten guztien alde. Eska diezaiogun Jaunari.
- Fedez eta begirunez biltzen den gure elkartearen alde, gure parrokian on egiten duten guztien alde eta behartsuei laguntzen dietenen alde. Eska diezaiogun Jaunari.

Entzun, Jauna, igandea ospatzera bildu den Zure herriaren otoitzak, eta egizu, Zure Semearen hitza entzunez eta biziaren bere ogitik janez egiatzko profeta eta betiko biziaren iturrira garamatzan artzain on aitor dezagula. Errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan.

Jaunartze-ondorengo otoitza

**Zaude beti, Jauna, zeure herriarekin,
eta zerutar misterioak ezagutarazi dizkiezunei emaezu,
beren izate zaharra utzirik,
jainkozko bizi berriaren erara bizitzea.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.**

